

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

439/2016 Foru Agindua, azaroaren 18koa, onartzen duena Ana María Urquijo Fernández de Zuazo aldi baterako izendatzea, Okondoko Udaleko diruzain lanpostua bete dezan

Irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren, Estatuaren aurrekontuan ezohiko kredituak eta kreditu gehigarriak esleitu eta enplegu publikoari eta ekonomia suspertzeari buruz beste neurri batzuk onartzen dituenaren, 3. artikulua aldatu egiten du apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 92 bis artikuluko 2. paragrafoa. Hauexek dira aldaketak:

“Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen eskala honako azpieskala haue-
tan banatzen da:

- a) Idazkaritza, aurreko 1.a) idatz zatian jasotako eginkizunak dagozkiona.
- b) Kontuhartzailletza-Diruzaintza, aurreko 1.b) idatz zatian jasotako eginkizunak dagozkiona.
- c) Idazkaritza-Kontuhartzailletza, aurreko 1.a) eta 1.b) idatz zatietan jasotako eginkizunak dagozkiona.”

Ildo horretan, aldaketaren ondorioz, 2015eko irailaren 13tik aurrera, egun horretan ja-
rri baitzen indarrean Errege Lege Dekretu hori, Idazkaritza-Kontuhartzailletza azpieskalako
funtzionarioei berdin-berdin dagozkie idazkaritza lanak (fede publikoa eta arauzko lege
aholkularitza), ekonomia, finantza eta aurrekontu kudeaketaren kontrola eta barne fiskaliza-
zioa; eta era berean, kontu hartze, diruzaintza eta dirubilketa lanak. Zinegotziek ezin dituzte
eginkizun horiek bete.

Aldi baterako, toki erakundearen jarduna bermatzeko xedearekin, pertsona berak bete ahal
izango ditu idazkaritza, kontuhartzailletza eta diruzaintza eginkizunak.

Aurrekoa gorabehera, eta 2016ko abenduaren 31ra arte, abenduaren 27ko 27/2013 Legearen,
toki administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunari buruzkoaren, zazpigarren xedapen
iragankorrean ezarritakoarekin bat etorriz, hain zuzen ere uztailaren 9ko 18/2015 Legearen azken
xedapenetatik bigarrenak emandako idazkeran (azaroaren 16ko 37/2007 Legea, sektore publi-
koko informazioa berrerrabiltzeari buruzkoa, aldatzen du), udalek araudi horretan xedatutakoa
bete beharko dute, kontuan hartuta aurreikuspen hauek:

– Gaikuntza nazionaleko funtzionarioa, haiei gordetako lanpostuak betetzeko sistemaren
bidez.

– Hori posible ez balitz, aldundiko karrerako funtzionario bat izendatu liteke, zeina gaikuntza
nazionaleko toki administrazioko funtzionarioa izan litekeen, laguntza teknikoko zerbitzuetara
atxikia edo, ez balego, hango beste edozein funtzionario.

– Hori ere ez bada posible, toki erakundean lanean ari den karrerako funtzionario bat.

– Eta hori ere ez bada posible, bitarteko funtzionario bat izendatu ahalko da, honako hauen
arabera: 7/1985 Legearen 92.bis.7 artikulua; apirilaren 12ko 7/2007 Legearen, enplegu pu-
blikoaren oinarriko estatutuarenaren, 10. artikulua, eta uztailaren 29ko 1732/1994 Errege De-
kretuaren, Estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzako gordetako lanpostuak betetzeari
buruzkoaren, 34. artikulua.

Azaldutako hori guztia oinarri, alkatearen 2016ko urriaren 31ko idazki baten bidez, Okondoko udalbatzak 2016ko urriaren 27ko ohiko bilkuran hartutako erabakia helarazi zaio aldundi honi, eta hau eskatu dio:

1. Irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankorretatik zazpigarrenaren eta 3. artikulua arabera, aldundi honek bertako funtzionarioak izendatu ditzala, 5.000 bizilagun baino gutxiagoko udalerrietan diruzaintza eginkizunak bete ditzaten.

2. Halaber, eta aurreko hori posible ez bada, Arabako Foru Aldundiari salbuespenez eta aldi baterako eskatzen zaio udal hartako Ana M^a Urquijo Fernández de Zuazo karrerako funtzionarioa izenda dezala behin-behineko diruzain, harik eta aldundiak udalean diruzain bat izendatu arte.

Jakinarazi behar da foru aldundi honek egun ezin duela lanpostua bete funtzionario propio bat izendatuz, ez duelako lanpostu hori betetzeko inolako funtzionarioen daturik.

Aurreko guztiaren ondorioz, irizten diogu bidezko dela onartzea Okondoko Udalak aurkeztu duen izendapen proposamena udal diruzainaren lanpostua betetzeko.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 92.bis.7 artikuluan agindutakoa eta 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 40. artikuluan jasotako eskumenak betez, eta haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ana M^a Urquijo Fernández de Zuazoren behin-behineko izendapena egitea, Okondoko Udaleko diruzain lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Okondoko Udalari eta Eusko Jaur-laritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 18a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ